

TITULARRAK	ADIERAZLEAK		
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
- Guztira, 20.658 langabe erregistratu dira uztailan. BALren arabera, bigarren hiru hilekoa % 7,93ko langabezia-tasarekin itxi da. - Guztira, 184.966 pertsona daude afiliatuta, aurreko hilabeteari dagokionez -% 0,8 da. -% 3,7 murriztu dira hiriko enpresek egindako kontratuak. - Merkataritzako saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek urte arteko % 0,2ko igoera izan dute hilabetea amaitzerakoan. Jakien salmentek gora egin dute eta gainerako produktuen salmentek, aldiz, behera. - Bilboko jarduera turistikoak hobera egin du, izan ere, urtez urteko igoera izan dute bidaiarien sarrerek (% 5,0) eta ostatu-gauak (% 4,9). Eskuragarri dauden logelek ere gora egin dute (% 22,9). 215 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira, eta hori 2022ko aldi berean baino % 8,6 gehiago da. 88 sozietate desegin dira (-% 4,3 gutxiago). - Bilboko aireportuan 604.247 bidaiari erregistratu dira ekainean, hau da, 2022ko hilabete horretan baino 69.673 gehiago. - Portuko trafikoak gora egin du (% 0,3) ekainean, eta garraiatutako 3 milioi tona ere gainditu dira.	Lan-merkatua Afiliatutako biztanleak (kop.) 184.966 Erregistratutako langabeak (kop.) 20.658 Langabezia-tasa (BAI) 7,93 Erregistratutako kontratuak 13.381 Merkataritza Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea= oinarria 100) 112,6 Turismoa Bidaiarien sarrera (kop.) 99.041 Ostatu-gauak (kop.) 192.497 Ekonomia eta enpresa Sortutako merkataritza-sozietateak 215 Deseginako merkataritza-sozietateak 88 Garraioa Bidaiarien aireko garraioa (kop.) 604.247 Salgaien itsas garraioa (milioi tona) 3,02	-0,8* -1,5* -2,11 p.p.* -3,7 0,2 5,0 4,9 8,6 -4,3 13,0 0,3	eka. eka. II. HH eka. eka. II. HH II. HH eka. eka.

DATU BAT

% 7,93

Langabezia-tasa BAI

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia-tasa

Ekainean 317 langabe gutxiago erregistratu dira; horrek esan nahi du hilabete arteko $-1,5\%$ ko murrizketa izan dela, eta 20.658 langabe daudela udalerrian.

Emakumeen langabezia jaitsi egin da ($-0,5\%$): 56 langabe gutxiago maiatzarekin alderatuta. Gizonen langabeziak ere, behera egin du ($-2,8\%$; 261 langabe gutxiago).

Langabeziak behera egin du aztertutako adin-segmentu guztietan, eta jaitsiera hori batez ere 45 urte eta gehiago adin-taldean nabarmendu da; izan ere, adin horretan 142 langabe gutxiago daude. Jaitsi egin da adin-tarte hauetan: 25 eta 44 urteen artean (-138) eta 16 eta 24 urteen artean (-37). Azken tarte horretan murriztu da gutxien.

Langabeziak behera egin du jarduera-sektore guztietan: eraikuntzan ($-4,4\%$ eta 63 langabe gutxiago), industrian ($-4,6\%$ eta 66 gutxiago), zerbitzuetan ($-1,2\%$ eta 181 gutxiago) eta lehen sektorean ($-1,6\%$ eta 6 gutxiago). Mantendu da lehen lana bilatzen dutenen artean ($0,0\%$).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5), langabeziaren bilakaerak $-1,3\%$ ko beherakada izan du aurreko hileko datuen aldean. Langabeziak behera egin du taldeko hiriburu guztietan. Zaragoza nabarmendu behar da, $-3,5\%$ ko beherakadarekin.

Euskal hiriburuaren taldean (G-3) langabeziak $-2,8\%$ egin du behera. Izan ere, Gasteizen, $-2,6\%$ murriztu da; Donostian, $-2,8\%$; eta Iruñean $-2,9\%$.

Langabeziak behera egin du EAEn ($-1,8\%$) eta hiru lurraldeetan banan-banan: $-2,4\%$ Araban, $-1,7\%$ Bizkaian eta $-1,6\%$ Gipuzkoan.

Afiliatuak

Ekainaren amaieran, 184.966 pertsona zeuden afiliatuta Bilboko enpresetan; hau da, maiatzean baino 1.576 enplegu gutxiago, eta $-0,8\%$ gutxiago hilerik hile.

Araubideen arabera: Afiliazioa galdu du orokorrak (1.418 enplegu gutxiago eta $-0,9\%$), langile autonomoena (111 gutxiago eta $-0,5\%$) eta etxeko langileena (59 gutxiago eta $-0,9\%$). Araubide berezietan soilik (nekazaritza eta itsasoa) igo da enplegua (12 afiliatu gehiago eta $+1,7\%$).

Sektoreen arabera: zerbitzuetan bakarrik galdu da afiliazioa (1.788 gutxiago). Industrian, eraikuntzan eta lehen sektorean gora egin dute afiliatuak (179, 24 eta 9 gehiago, hurrenez hurren).

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

Ekaina	20.658 pertsona
	% 1,5 ▼
Emakumeak	% 0,5 ▼
Gizonak	% 2,8 ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 1,5 ▼
G-5	% 1,3 ▼
G-3	% 2,8 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Afiliatuak, araubideen arabera

Hilabete arteko Δ

Ekaina	184.966 pertsona
	% 0,8 ▼
Araubide Orokorra	% 0,9 ▼
Autonomoak	% 0,5 ▼
Etxeko Sistema Berezia	% 0,9 ▼
Beste batzuk	% 1,7 ▲

Zerbitzuetan, jaitsiera absolutuak nabarmentzen dira hezkuntza, administrazio-jarduera, aisialdi eta kultura eta informazio eta komunikazioetan (1.880, 364, 321 eta 253 afiliatu gutxiago, hurrenez hurren). Horrez gain, behera egin du administrazio publikoan ere (117 enplegu gutxiago). Gora egin du, beste arlo batzuen artean osasunean, gizarte-zerbitzuetan eta merkataritzan (609, 190, eta 172 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

Urte artean enpleguak % 1,9 gorakada izan du, hau da, 3.524 afiliatu gehiago. Urtetik urtera, nabarmentzekoa da Langile Autonomoen Erregimen Bereziko afiliazioak behera egin duela (–% 2,1 eta 479 gutxiago), hemeretzi hilabetez jarraian murrizketak izan ondoren.

Sektoreen arabera, zerbitzuek 2.921 afiliatu batu dituzte (% 1,8), eraikuntzak 354 (% 3,9) eta industriak 259 (% 3,1). Zerbitzuetan, datu erlatiboetan, nabarmentzekoak dira ostatu-gauen igoera (% 7,8, 135 enplegu gehiago), informazio eta komunikazioena (% 7,4, 680 gehiago), ostalaritzakoa (% 6,9, 654 gehiago) eta hezkuntzakoa (% 3,9 eta 857 gehiago), eta, halaber, administrazio-jardueren beherakada (–% 6,7, 1.209 gutxiago), higiezin jarduerena (–% 3,2,40 gutxiago) eta merkataritzarena (–% 0,8, 155 gutxiago).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak –% 0,8ko jaitsiera islatu du aurreko hilaren aldean. Afiliazioak behera egin du taldeko hiri guztietan. Sevilla eta Zaragoza nabarmendu behar dira, beherakadarik handienak izan baitituzte (–% 1,8 eta –% 1,7, hurrenez hurren).

G-3ko hiriburuetan, batera hartuta, afiliatuen kopurua guztira jaitsi egin da: –% 0,8. Gasteizen –% 1,3 egin dute behera afiliatuek. Donostia eta Iruñean, bi kasuetan, –% 0,6 egin du behera enpleguak. EAEn, orokorrean, –% 1,0 egin dute behera afiliatuek. Afiliazioak behera egin du Bizkaian eta Araban (–% 1,3 bi kasuetan), bai eta Gipuzkoan ere (–% 0,5).

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko Δ

Ekaina	184.966 pertsona
	% 0,8 ▼
Zerbitzuak	% 1,1 ▼
Eraikuntza	% 0,3 ▲
Industria	% 2,1 ▲
Lehen sektorea	% 3,4 ▲

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 0,8 ▼
G-5	% 0,8 ▼
G-3	% 0,8 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Ekainean 13.381 kontratu sinatu ziren Bilbon; hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 520 kontratu gutxiago sinatu dira, –% 3,7 aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

2022ko ekainarekin alderatuta, emakumeei zein gizonei egindako kontratuak behera egin dute, 475 eta 45 gutxiago, hurrenez hurren. Adin-tarteen arabera, 45 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokie erregistratutako kontratuen % 47,1 (6.303 kontratu); % 27,9, berriz, 25 urtetik beherakoei (3.730), eta gainerako % 25,0 45 urtetik gorakoei (3.348).

Sektoreen arabera, industriako eta lehen sektoreko kontratuak gora egin dute (97 eta 1 gehiago, hurrenez hurren); behera egin dute zerbitzuetan (549 gutxiago) eta eraikuntzan (69 gutxiago).

Erregistratutako kontratuak

Urte arteko Δ

Ekaina	13.381 kontratu
	% 3,7 ▼
Emakumeak	% 6,1 ▼
Gizonak	% 0,7 ▼
Lehen sektorea	% 7,1 ▲
Industria	% 17,0 ▲
Eraikuntza	% 15,2 ▼
Zerbitzuak	% 4,3 ▼
Kontratututako pertsonak	% 4,1 ▼

Zerbitzuetan, nabarmentzekoa da, datu absolutuetan, ostalaritzan (236 gutxiago), osasuneko eta gizarte zerbitzuetako jardueretan, arte-jardueretan, aisialdikoetan eta entretenimendukoetan eta administrazio-jardueretan (192, 164 eta 110 gutxiago, hurrenez hurren) izandako kontratuen beherakada. Kontratuen gorakada nabarmena egon da, besteak beste, garraioan eta biltegiatzean eta informazio eta komunikazioetan, 182 eta 127 gehiago, hurrenez hurren.

Ekainean, kontratu guztien % 23,3 mugagabeak izan dira, eta % 76,7 aldi baterakoak. 9.879 pertsona kontratatu dira eta % 54 emakumeak dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,35 kontratu.

BAI

BAIren bigarren hiruhilekoan ixtean, gorakada handia ikusi da Bilboko okupazioan, bai eta langabeziak behera egin duela ere (3.200 langabe gutxiago).

Okupazioan, emakumeen kasuan bakarrik egon da igoera, 4.600 enplegatu gehiagorekin hiruhileko honetan.

Ehunekoetan 2,11 puntu jaitsi da hiribilduko langabezia-tasa, eta % 7,93n dago.

Lurraldean % 7,63raino egin du behera (-1,71 p.p.) eta EAEn % 7,13raino (-1,31 p.p.).

Biztanleria landuna

Bigarren hiruhilekoan % 3,2 egin du gora Bilboko biztanle landunen kopuruak, eta emakumeen kasuan baino ez du egin (4.600 gehiago, eta 100 gizon gutxiago).

Eraikuntzan izan ezik, 1.700 landun galdu baitira, beste jarduera-sektore guztiek okupazioa irabazi dute hiribilduan. Zerbitzuetan egin du gora (+3.600), bai eta industrian (+2.000) eta nekazaritzan ere (+600).

Hiribilduan bizi direnen enplegu-tasa % 50,86an dago; emakumeen kasuan, % 45,94 da eta gizonen kasuan % 56,25.

Biztanleria langabetua

Behera egin dute biztanle langabeek, 2023ko lehen hiruhilekoaren amaierako 15,8 milatik bigarreneko 12,6 milara.

Aurreko hiruhilekoari dagokionez, jaitiera hori handiagoa izan da emakumeen artean (2.100 emakume langabe gutxiago) gizonen artean baino (1.200 gutxiago).

Udalerriko langabezia-tasa jaitsi da, eta % 7,93an dago bigarren hiruhilekoan.

Biztanleria Aktiboaren Inkesta BAI- II.

hiruhilekoa

Hiru hile arteko Δ

Langabezia-tasa % 7,93
2,11 pp ▼

Emakumeak 3,09 pp ▼

Gizonak 1,24 pp ▼

Biztanleria aktiboa % 0,8 ▲

Biztanleria landuna % 3,2 ▲

Biztanleria langabea % 20,3 ▼

MERKATARITZA

Merkataritzako saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek lan-egutegiko baldintza homogeneoetan % 0,2 egin dute gora urte batetik bestera maiatzean. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 0,4 jaitsi dira salmentak.

Elikagaien salmentek % 2,8 egin dute gora 2022ko apirilarekin alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak -% 3,4 jaitsi dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 1,8ko gorakada izan du, eta horrela izan da hamaika hilabetez jarraian.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Araban (% 0,6) eta Gipuzkoan (% 4,5). EAEn, orokorrean, % 1,6 egin dute gora.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte arteko Δ

Ekaina	112,6
Salmenta-indizea	% 0,2 ▲
- Elikadura	% 2,8 ▲
- Gainerako produktuak	% 3,4 ▼
Landunak	% 1,8 ▲

TURISMOA

Bilboko hotelen establezimenduetan 192.497 erregistro egon dira ekainean. Aurreko urteko hil berean baino 8.974 gehiago zenbatu dira (% 4,9).

Bidaia-ien sarrerek gora egin dute (+% 5,0) bakarrik bidaia-ari atzeritarren kasuan, eta % 23,0 handitu dira 2023ko ekainari dagokionez. Estatukoak hiribilduko hoteletan ostatu hartu duten bidaia-ari guztien % 39,9 izan dira, eta -% 13,9ko beherakada izan dute.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaia-iei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 23,0), gero EAekoak (% 15,0), Kataluniakoak (% 12,7) eta Andaluziakoak (% 11,0). Atzerriko bidaia-iei dagokienez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: AEB (% 11,8), Erresuma Batua (% 11,1), Alemania (% 10,8) eta Frantzia (% 9,3).

Batez besteko egonaldia 1,94 ostatu-gau bidaia-ari bakoitzeko.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 104,8 eurokoak dira, % 22,9 gehiago urte artean

Benchmarkina. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, hiruhilekotik hiruhilekora % 8,0 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 20,0) eta Donostian (% 6,7), eta behera Iruñean (-% 0,2).

Ostatu-gauak

Urte arteko Δ

Ekaina	192.497 ostatu-gau
	% 4,9 ▲
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 2,7 ▲
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 11,8 ▲

Bidaia-ien sarrera

Urte arteko Δ

Ekaina	99.041 sarrera
	% 5,0 ▲
Nazionalak	% 13,9 ▼
Atzerritarrak	% 23,0 ▲

Batez besteko egonaldia

Urte arteko Δ

Ekaina	1,94 ostatu-gau/bidaia-ari
	% 0,5 ▼

Sektorearen errentagarritasun adierazleak

Urte arteko Δ

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 17,1 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 22,9 ▲

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 3,5eko gorakada izan dute. Bartzelonan izan ezik (-% 1,1), ostatu-gauek gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Madrilen egon da gorakadarik altuena (% 8,3).

ENPRESAK

Sozietate berriak

2023ko bigarren hiruhilekoan Bilbon 215 merkataritza-sozietate berri eratu dira. Horrek % 8,6ko gorakada dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean (17 sozietate gehiago).

Sektoreka, zerbitzuetan 175 sozietate sortu dira, hau da, aurreko urtean baino 10 gehiago; industrian 12 sortu dira eta eraikuntzan 28 (hurrenez hurren, 5 gutxiago eta 12 gehiago).

Bigarren hiruhilekoan 88 sozietate desegin dira, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean baino 4 gutxiago. % 84,1 zerbitzuen sektorekoak dira, % 13,6 eraikuntzakoak eta % 2,3 industriakoak.

GARRAIOA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 604.247 bidaiari erregistratu ditu ekainean (iritsierak eta irteerak); beraz, urte artean % 13ko igoera izan du (aurreko urteko hilabete berean baino 69.673 bidaiari gehiago). Horrela daturik onena lortu zen jarduera hasi zenetik.

Igo egin dira estatuko hegaldietan izandako bidaiariak (21.904 gehiago urte artean, % 6,5), bai eta nazioartekoetan ere (% 23,8 hazi dira, eta 47.295 bidaiari gehiago egon dira).

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 4.762 izan dira (% 5,5), baina garraiatutako merkantziak igo dira (-% 9,9).

Aurten, dagoeneko 2.826.775 bidaiari lortu dira Bilbon; hau da, aurreko urteko epe berean baino % 32,6 gehiago izan dira, 694.581 bidaiari gehiago, alegia. 2019. urteko balioak gainditu dira (+% 1,9 eta 51.617 bidaiari gehiago).

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 4,9 ▲
G-5	% 3,5 ▲
G-3	% 8,0 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Merkataritza-sozietateak

Urte arteko Δ

II. hiruhilekoa

Sortutakoak	% 8,6 ▲
Desegindakoak	% - 4,3 ▼

Aireko garraioa

Urte arteko Δ

Ekaina	604.247 bidaiari
	% 13,0 ▲
Estatutakoak	% 6,5 ▲
Nazioartekoak	% 23,8 ▲
Salgaiak (kg)	% 9,9 ▼
Hegaldiak	% 5,5 ▲

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 11,4ko igoera kontabilizatu da. Zaragozan izan ezik (–% 6,1), taldeko aireportu guztietan nabarmen egin du gora bidaiarien kopuruak.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 20,4 handitu da. Langabeziak bakarrik egin du behera Iruñean (–% 9,4), eta gora egin du Gasteizen (% 36,2) eta Donostian (% 22,1).

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 13,0 ▲
G-5	% 11,4 ▲
G-3	% 20,4 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Itsas garraioa

Bilboko Portuak 3,0 milioi tonako trafikoa izan du ekainean, hau da, % 0,3 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan ekainean kudeatutako salgaien % 62 izan da, eta urte arteko % 2,3ko igoera izan du. Solteko gaien trafikoak % 12,5 egin zuen gora (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrek % 9,1.

Bidaiarien itsas garraioan, 33.532 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran.

Ekainean 8 itsas bidaia eta 18.629 itsas bidaiari erregistratu dira.

Metatutako datuari dagokionez, urtariletik ekainera, 16,5 tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko epe berean baino % 2,8 gehiago.

Itsas garraioa Ekaina

Urte arteko Δ

Portuko trafikoa	3,0 milioi tona
	% 0,3 ▲
Bidaiariak garraiatzea	33.532 bidaiari
	% 12,6 ▲
Itsas bidaiariak (kop.)	18.629
	% 10,3 ▲

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken datua	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	20.658	-1,5*	2023ko eka.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	184.966	-0,8*	2023ko eka.
Erregistratutako kontratuak (kop.) **	13.381	-3,7	2023ko eka.
Biztanle aktiboak (milakotan)	158,8	0,8*	2023ko II. HH
Biztanleria landuna (milakotan)**	146,2	3,2*	2023ko II. HH
Langabeak (milakotan)	12,6	-20,3*	2023ko II. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	7,93	-2,11 p.p.*	2023ko II. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	112,7	0,8*	2023ko eka.
Afiliatuak**	19.264	0,9*	2023ko eka.
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	108,9	4,7	2023ko I. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	112,6	0,2	2023ko eka.
Turismoa			
Bidaarien sarrera	99.041	5,0	2023ko eka.
Ostatu-gauak	192.497	4,9	2023ko eka.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia)	1,94	-0,5	2023ko eka.
Hoteletako okupazio-maila (%)	59,0	0,7 pp	2023ko eka.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako ,(€)	104,8	22,9	2023ko eka.
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BGPd	113,9	2,2	2023ko I. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	121,0	0,0	2023ko mai.
Merkataritza-sozietate berriak	443	7,0	2023ko I. eta II. HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	108,3	5,8	2023ko I. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	2.703,51	-20,8	2023ko I. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²)	2.753,77	-6,8	2023ko I. HH
Garraioa			
Bidaariak aire bidezko garraioa	604.247	13,0	2023ko eka.
Hegaldiak	4.762	5,5	2023ko eka.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	3,0	0,3	2023ko eka.

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaia dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


BAI




Populazio afiliatua




Erregistratutako langabezia-tasa



Hotel-gauak



Merkataritza-sozietate berriak



Aireportuko bidaiariak

